

ESKOLA ARTEKO  
ANTZERKIAREN  
XXIII. LEHIAKETA, 2017-2018

**OINARRIAK**

- 1.- Lanen gaia librea izango da eta euskaraz, gaztelaniaz eta beste edozein hizkuntzatan idatziak edo testurik gabekoak izan daitezke.  
Eskola mailako lehiaketa denez, eta, hortaz, hezkuntza esparrukoa, garrantzizkoa da lanaren gaia eta bertan egokitzen aurkeztutako pertsona-ereduak, jokaerak eta gizarteak ez daitezela joan ikastetxean jorratzen diren zeharkako balioen aurka. (Horrek ez du esan nahi ezin daitezkeela antzestu jokamolde sexistak, indarkeriazkoak, ingurumenaren gainesplotazioari buruzkoak edo bestelakoak. Ez da onartuko jokamolde horiek eredu garrantzitsuak edo jarraitzeko modukotzat agertzea).
- 2.- Bilboko udalerrri barruko ikastetxeek bakarrik har dezakete parte. Lanak gelan edo eskolaz kanpoko jarduera moduan antolatu ahal izango dira. Lehiaketa honetatik kanpo geratzen dira dantza, antzerki eta abarreko akademiak edo eskolak, baita arlo eszenikoko ikastaroak edo tailerrak ere, publikoak zein pribatuak, ikastetxe batekin lotuak ez badira.
- 3.- Lanaren alderdi teknikoak (argiak, soinua, arropak, eszenografia, atrezzoak, errejidorea...) pertsona helduek egitea eta horretan parte hartzea onartzen da. Hala ere, baloratu egingo da ikasleek egiten badituzte. Irakasleak, gurasoak edo pertsona helduak ezingo dira obrako antzezle izan.
- 4.- Obraren iraupena ez da 30 minututik gorakoa izango. Iraupen luzeagoko obrak lehiaketatik kanpo utzi ahal izango dira antolatzaileen eta epaimahaikideen iritzia araberak, eta kanpo uzten ez badira ere, ezingo dute saririk jaso.
- 5.- Ikastetxe bakoitzak gehienez hiru obra aurkeztu ahal izango ditu, bakoitza bere kide eta antzezleekin.
- 6.- Aurkezten den obra bakoitzaren izen-emateko fitxa behar bezala beteta bidaliko dira Bilbao Eszenara (Juan de Gardeazabal 3 – 48004 Bilbo) edota posta elektronikoz ([bilbaoeszena@bilbao.eus](mailto:bilbaoeszena@bilbao.eus)). Honako hauek jasotzen dituen memoria ere bidali behar da:
  - Antzezleen, teknikarien eta obraren egilearen izen-abizenak eta adina.
- 7.- Sariak  
Sari guztiak balio berekoak dira (ez dago lehenengo saririk, bigarrenik, hirugarrenik eta horrelakorik) eta eszena eta hezkuntza arloko irizpideen arabera emango dira.

Epaimahaiak sei sari emango ditu guztira, palmaresaren arabera, eta bere kabuz izendatutako accesit bakarra emateko aukera ere izango du, guztiak ere diru-kopuru berekoak.

- Lan eszenikorik onena (300 €).
- Proposamen eszenikorik originalena (300 €).
- Obraren alderdi teknikoen tratamendurik onena (300 €).
- Antzerki, dantza, zirku edo bestelako diziplina eszenikoak berreskuratzeko lanik onena (300 €).
- Interpretazio global eta koraleko lanik onena (300 €).
- Parte-hartzaileen adinera ondoen egokitutako lana (300 €).
- Epaimahaiak bere kabuz izendatutako accesit bat, palmaresean jaso gabeko alderdiak saritzeko (300 €).

Eskudirutan ematen den saria jasotzeko, lana antzeztu beharko dela Arriaga Antzokiko galan, horretarako aukeratu badute.

- 8.- Sariak eman gabe gera daitezke epaimahaiak hala erabakitzen badu.
- 9.- Lehiaketa honetan parte hartzen duten ikastetxeei 300 euroko kopuru finkoa emango zaie obra bakoitzeko, euren muntaiak egiten laguntzeko. Hala ere, aurreko edizioetan baino antzezlan gehiago aurkezten bada eta, ondorioz, aurrekontua nahikoa ez bada ikastetxeei kopuru finko hori emateko, orduan kopuru txikiagoa emango zaie, alegia, aurrekontua aurkeztutako lanen artean banatuz.

Udalak aipatutako sariak eta diru-laguntzak ordaindu ahal izateko, ikastetxeek erantzukizuneko aitortpena aurkeztu beharko dute, adieraziz ez dutela zorrik Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin eta ez daudela sartuta laguntza publikoen onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan finkatutako debekuetan.

- 10.- Arte eszenikoetan eta adierazpideen pedagogian adituak diren kideek osatuko dute epaimahaia.
- 11.- Epaimahaia ikastetxe guztien esanetara dago, obra sortzeko prozesuan laguntzeko, orientatzeko eta aholkuak emateko. Alderdi teknikoei buruzko zalantzak argitzeko, ikastetxeek helbide elektroniko honetara bidali beharko dituzte mezua: [bilbaoeszena@ayto.bilbao.net](mailto:bilbaoeszena@ayto.bilbao.net)
- 12.- Epaimahaiak, ikasturte amaieran izango den gala handian antzeztuko diren lanak aukeratuko ditu saritutakoen artean. Lehiaketan parte hartzeak ikastetxe bakoitzeko gutxienez ordezkari bat gala horretara joatera behartzen du, diplomak jasotzeko.
13. Galarako gonbidapenak Bilbaoeszenan egongo dira eskuragarri bere garaian adieraziko diren egunetan eta orduetan.
- 14.- Epaimahaiak bere gain hartu du oinarri hauetan azaldu gabeko gaiak erabakitzeko eskubidea eta bere erabakiak aldaezinak dira.

15. Saria jaso baino lehen, saritutako pertsonak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, administrazio eskudunak aurten egina; halaber, Gizarte Segurantzako betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, Diruzaintza Nagusiak aurten egina.
- b) Erantzukizunezko adierazpena, diru-laguntza eskuratzeko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela adierazten duena (erantsitako ereduaren arabera).
- c) Bilboko Udalaren ordainketarik inoiz jaso ez duten pertsonak eta, hortaz, Hartzekodunen Erregistroan ez badaude, "Hartzekodunen fitxa" bete eta aurkeztu beharko dute (emango zaien eredia erabilia). Horrekin batera NAN/IFZ/Pasaporte eta banketxeko kontuaren titulartasuna egiaztatzeko agiriren bat aurkeztuko dira.

16. Oinarrietan araututa ez dagoenerako, ordezkotza izaeraz, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Ordenantza hori 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen Bilboko Udaltzarrak eta 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen BAO (138. zenbakia).